

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS



# ERMITAK

eta Artearen Historia

Oihane Barrena Diana

Tutorea: Aintzane Erkizia

2022-2023 ikasturtea

Artearen Historiako Gradua

Artearen Historia eta Musikako Saila

## LABURPENA

Ermitak gehien ugaritzen diren tenplu kristauak dira, kopurua bezain anitzak diren funtzio erlijioso eta sozialak bete izan baitituzte kristautasunak gure lurretan indarra hartu zuen momentutik. Herritarrengandik hurbilago egon diren kultu tokiak izanik, debozio herrikoiagoa praktikatzeko aukera izan dute, landa gunean sortutako beharretara egokitzen den erlijioa lortuz. Santuak funtsezkoak izan dira, aurreko sinesmen paganoak bereganatu eta egokitu ostean, kristautasunak bizilagunen behar guztiei erantzuteko ahalmena lortu zuelako.

Bestalde, herritarrengandik hurbilago izan diren gunek sakratuak direnez, bertan burutzen zituzten praktikak ez ziren erlijiosoak soilik izan, auzoan egunerokoan oso presente imajinatu behar ditugu, eta ondorioz, honen kudeaketa auzokide laikoek gauzatzen zuten. Hala nola, serorak (emakume laikoak) izan dira Erdi Aroan hasi eta batez ere Aro Modernoan ermitak mantendu, hornitu eta egunerokoan presente egotea ahalbidetu dutenak. Bestalde, auzokide laikoak izan dira ere ermita mantentzeagatik dirua jarri dutenak, edota kultua bideratzeko beharrezko obrak enkargatu dituztenak. Bada, egunerokoan, eta baita bizilagunen nortasunean ere, zuen garrantzia demostratzen du honek, beraien baita hainbat ermita gaur egunera heltzearen meritua.

Hurbilketa artistikoa egitean ikusten da gehienetan ez direla oso interesgarriak izaten, are gutxiago obra monumentalen kalitate artistikoarekin alderatzen baditugu. Hori dela medio, artearen historiaren diskurtsotik kanpo gelditu izan dira. Baina, eraikinon esangura aztertzen badugu, arlo sozialean izan duten garrantzitik ulertu behar da ondare artistiko bezala duten balioa. Gainera, bizilagunen helburua ez zen artelan berritzaile, monumental edo aberats bat sortzea, horregatik da xumea emaitza, eta horregatik ez du zentzurik bestelako tenplu kristauetan erabiltzen diren kriterio berdinekin aztertzea.

Arte eta estetikaren ikerketan arte kultu eta arte herrikoia bereizi izan dira: elite intelektualek kultura zentro hedatzaileetan egin duten artea batetik, eta herri xeheak sortutako artea bestetik, tradizioarekin gehiago erlazionatu dena. Azken arte honen baliogabetze eta sinplifikazio orokortua eman da artearen ikerketan, eta beraz, hala gertatu da ermiten ikerketarekin ere. Dena den, eraikin hauek ere historiara lotuta egon dira, landatar guneko tradizioak nahitaez eraldaketan influentzia jaso izan du,

denboran zehar sortutako teknika, estilo artistiko zein esangura sinbolikoak onartuz eta baztertuz joan dira; eta alderantziz ere, herri xumeak historiaren garapenaren nondik norakoak baldintzatu ditu.

Guzti hau ermitetan modu materialean adierazi denez, artearen historialariak hauek ikertu beharko lituzke, horretarako beharrezkoa izanik ondare honetara egokitzen den metodologia batekin egitea, honetan ez litzateke zuzena izango artelan kultuekin alderatzea edota kalitate kriterio berdinak erabiltzea. Aitzitik, eliteetan soilik oinarritzen ez den historia bat sortzeko ikertu behar dira, historia bere osotasunean ulertu ahal izateko. Areago, arlo akademikoan baloratzeak gizartean ere baloratuak izatea ekarriko luke. Honez gain, desagertzen ari den ondarea izanik, beharrezkoa da interbentzio planak bideratzea, egungo gizartearen beharretan eta ermiten esanguran -eta ez adierazpen monumentaletan- oinarri hartzen dutenak.

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. BIZILAGUNENA DA ERMITA .....	3
2.1. Ermiten definizioa .....	3
2.2. Ermitetako debozioa .....	4
2.3. Bizilagunen egunerokoan izan duten garrantzia .....	7
3. ZERGATIK IKERTU BEHAR DIRA ARTEAREN HISTORIATIK? .....	11
3.1. Ermitak artea dira?.....	11
3.2. Ikerketa eta kontserbazio neurri egokitu baten beharra .....	18
4. ONDORIOAK .....	23
5. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK.....	25

## 1. SARRERA

Lan hau aurtengo kurtsoan hasitako ikerketa praktikan oinarritzen da, Ikasiker lankidetzaren laguntzaz gauzatu dudana. Praktikotan, beste ikaskide batzuekin batera, Aiaraldeako haraneko herrietako ermiten azterketa artistiko-historikoa egiten ari gara. Honetarako landa praktika eta artxiboko lana egin behar izan dugu. Ondoren, Arabako *Ohitura* aldizkari etnografikoko 16. zenbakian publikatuko dira sortzen ditugun testuak, ermiten historia eta artea azaltzen duten atalak osatuago eta profesionalagoak izan daitezten.

Hasierako ideia GrALean praktikan egindakoa erakustea izan arren, ermiten ikerketak hainbat hausnarketara eramanez ninduten, bada, gogoeta hauek aurkezten dira. Helburua ermitak ondare artistiko gisa duten balioa aztertzea da. Hori lortzeko, "bizilagunena da ermita" atalean ermitak zergatik sortu diren eta zein funtzio bete duten aztertzen da. Izan ere, hau ulertzea beharrezkoa izan da hausnarketara heltzeko, eta ondorio modura, ermiten artearen historian zein balio izan dezaketen ikusteko. Erreflexio horiek hurrengo atalean, "Zergatik ikertu behar dira ermitak artearen historiari?", azaltzen dira: ermiten ondare historiko-artistiko gisa zer diren, eta artearen historiara zein ekarpen berri egin ditzaketen ondorioztatzen da. Eta honekin batera, baloratuak izateko ikerketa artistiko eta interbentzio egokiak egitea duen garrantzia.

Zein garrantzia sozial eta erlijioso izan dutenaren azterketa, Euskal Herriko landa guneko debozioa, kultura, giza taldeak eta ermitak aztertzen dituzten bibliografian dago oinarrituta batez ere (badaude beste bibliografia batzuk erlijiositatea modu orokorragoan azaltzen dutenak). Bestalde, ermitak ondare artistiko gisa duten balioaren azalpenek, arte eta arkitektura herrikoien izaera aztertu, edota hauen ikerketa erreibindikatzeko bibliografia dute oinarri. Bibliografiaren gain, kurtsoan zehar ikerketa praktikan Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoan irakurritako zenbait dokumentu ere agertzen dira azaltzen diren ideiak justifikatzeko. Dena den, nahiz eta adibide gisa ikerketako ermitako dokumentazioa erabili, azken gogoetak ez dira bertan landutako ermitenak soilik, osotasun batean diziplinara egin ditzaketen ekarpenak eta hauen ikerketa egoki bat egiteak ondare honetara ekarriko lituzkeen onuren hausnarketak dira.

## 2. BIZILAGUNENA DA ERMITA

### 2.1. Ermiten definizioa

Gaiari hasiera emateko, **ermitak definitzea** beharrezkoa da. Herriaren deboziotik sortzen diren eraikin erlijiosoak dira. Sinpleak dirudite, azterketa artistiko formala egitean ere hau da burura etortzen zaigun ideia: xumeak direla, herritarren instintu erlijiosotik eta esfortzu intelektual handirik gabe sortutakoak. Dena den, ermitetan gehiago sakontzean, ugaritasuna aurkitzen dugu jatorrian, jabetzan, formetan, funtzioetan, promotoreetan, santuen izenpeetan...; definitzera goazen momentuan aniztasuna aurkitzen dugu beraz, eta ez sinpletasuna. Dena dela, badituzte elementu batzuk komunean: erlijio kristauaren tenpluak direla eta herritarren zerbitzura bideratutako funtzio erlijioso eta baita sozialak betetzen dituztela (edo hobeto esanda, bete izan dituztela). Honek azaltzen du ermiten ugaritasuna eta denboran irautea.

Jatorria ezagutzea ez da erraza, izan ere, izaera herrikoiko adierazpenak izanik dokumentazioa oso urria da. Aro Modernoan kontrarreforma geroztik diozesietan ezartzen den kontrol sistemagatik ugaritzen dira akaso iturri dokumentalak; aldiz, oso urriak dira ermita horien erabiltzaileak ziren auzokideek idatzitakoak. Ziurrenik Erdi Arotik existitzen dira asko, kristautasunaren hedapenarekin bat eginez. Iberiar Penintsulan batez ere XII. mendetik aurrera, errekonkistak lurak hartzen zituela sortu ziren eraikin erlijioso ugari<sup>1</sup>. Dena den, Gurutzi Arregik konparaketa bat eginez, espainiar errekonkistak Mariaren kultuaren igoera momentuarekin bat egiten duenez, ermita gehienak Mariari dedikatutakoak direla ikusten du; aldiz, Iberiar Penintsula iparraldean santuei dedikatutakoak gehiago direla ikusten du<sup>2</sup>. Bertako parrokia gehienak aldiz, Mariaren izenpea dutela ikusten du, bada, auzoetan aurkitzen ditugun ermita asko XII. mendea baino arinago existituko zirela, eta kasu batzuetan milurtekoak direla ondorioztatzen du<sup>3</sup>. Beraz, ermita askotan nahiz eta fabrikak horren zaharrak ez izan, ermiten inguruko ohitura eta praktikak eraikuntzak baino arinagokoak izaten dira, kasu batzuetan kristautasuna iritsi baino lehenagokoak.

---

<sup>1</sup> LLAMAS, Enrique. *Las ermitas de Salamanca: historia, arte y religiosidad popular [1128-1861]*. Salamanca: Universidad Pontificia de Salamanca, 1997, 15-17. orr.

<sup>2</sup> ARREGI, Gurutzi. *Origen y significado de las ermitas de Bizkaia*. Bilbo: Instituto Labayru, 1999, 68. orr.

<sup>3</sup> Ibid., 72. orr.

## 2.2. Ermitetako debozioa

Ermiten esangura ulertzeko bertako debozioa ulertu behar da lehenik, funtsean, erlijio kristaua delako eraikinon existentziaren arrazoia. Auzo sakabanatuetakoa baserrietan antolatutako gizarteak azaltzen du Euskal Herriko ermiten ugaritasuna, askotan parrokiak aldendu egia sentitzen baitzituzten. Tenplu txiki hauetan bizilagunek **debozio herrikoia** manifestatu izan dute, nun Biblia eta teologian oinarritzen den debozio kultua izan beharrean, herri ez ikasiak erlijio ortodoxotik aldendu eta bere beharrei erantzuteko erlijiositatea aurkitzen duen. Honekin ez da erlijio ofiziala baztertzen, erabilgarritasunaren arabera egokitu baizik, Xabier Basurkok azaltzen duenez: “ intenta dar solución a necesidades no satisfechas por el sistema religioso oficial, para ello establece con lo divino unas relaciones más simples, más directas y más rentables [...] el fenómeno popular acerca lo divino al horizonte del hombre”<sup>4</sup>.

Helburua, beraz, erlijioak funtzionatzea da, eta fededunak landa gunean bizi zirenez, ermitetako sinesmenak landak markatu zituen: natura indarretara eta honen kontrola eskuratzera bideratu zen debozioa<sup>5</sup>. Natura eta erlijioaren arteko sinkretismoa santuek<sup>6</sup> eskaini izan dute, izenpeetako bakoitzak landa guneko beharrak asetzen baitzituzten: emankortasuna, babesa eta osasuna eskainiz lurra, animalia zein pertsonei<sup>7</sup>.

Hori horrela, santuen ugaritasunak batetik toki sakratuak ugaritzea eskaini izan du, **toki** sakratua esanguratsua izanik fededunentzako. Sakralizazioa justifikatzeko, eta tokia nabarmentzeko, oso ohikoa izan da interbentzio jainkotiarren kondaira bat asmatzea, zalantzarik gabe sakraltasuna onartzeko<sup>8</sup>. Izan ere, mendietan edo naturako toki misterioetsuetan aurkitzen ditugu askotan, ermitekin hierofania kristauarekin lotu edo justifikatu nahi izan balituzte. Euskarazko *baseliza* sinonimoak ere zibilizaziotik kanpora eramaten gaitu<sup>9</sup>. Baina, askotan ez daude zibilizaziotik aldenduta, preseski honen zerbitzurako sortu baitziren. Aitzitik, toki estrategikoetan eraiki dira: bide ertzak,

---

<sup>4</sup> BASURKO, Xabier. “Los Santuarios hoy: claves de interpretación teológico-pastoral”. In: *Santuarios del País Vasco y religiosidad popular: II Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Caja Provincial de Álava, 1982, 307-309. orr.

<sup>5</sup> CELIGUETA, M<sup>a</sup>. Ángeles. *Ermitas en la montaña alavesa y en Treviño. Estudio histórico-geográfico y artístico* [doktorego tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco, 1997, 451. or.

<sup>6</sup> Santu hitza erabiltzen dut, baina Ama Birjina eta Kristoren izenpeak ere aurkitu ditzakegu ermitetan.

<sup>7</sup> ARREGI, Gurutzi. *Origen...*, op. cit., 291-383. orr.

<sup>8</sup> MUGURUZA, Félix. *Sinesmen eta Kondairak*. Audio: Audioko Udala, 2022, 407. or.

<sup>9</sup> José Miguel de Barandiaranek, Gurutzi Arregiren lanean egiten duen hitzaurrean, aditzera ematen du ideia hau. ARREGI, Gurutzi. *Ermitas de Bizkaia*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1987, 1. lib., 13. or.

parrokiatik aldendutako auzoak, nobleen etxe alboak edota mugak<sup>10</sup> sakralizatu dituzte.



1. Irudia: Markina-Xemeingo San Joakin eta Santa Anaren ermita, Barroeta dorretxearen alboan.

Bestetik, santuek naturaren zikloan oinarritzen den **kalendario zikliko** bat eskaini izan dute. Hau ere modu estrategikoan erabili da: bizitza landatarreko komunitateek urtaroen erritmoen araberako jarduerak markatuta zituzten, eta horren arabera, naturaren trantsizio momentuetan eta nekazaritza eta abeltzaintzaren labore momentuekin erlazionatuta, santuen interbentzioak eskatzeko erritu egun seinalatuak zituzten<sup>11</sup>. Hori dela eta, santuen bidez lortu zuen erlijio kristauak landatar bizitzara egokitzea, monoteismotik irten gabe, politeismoa ulerterrazago bat eskainiz buru ez intelektualei<sup>12</sup>.

**Santu** batzuek **arrakasta** izugarria izan zuten herritarren artean, gehienetan arrazoi erabilgarri eta interesatuengatik<sup>13</sup>. Horien artean aurkitzen dugu San Sebastian, zeinak Erdi Arotik debozio herrikoian izugarrizko ospea izan duen, San Rokerekin batera epidemiaren aurkako babesa ematearren<sup>14</sup>. 288an martirizatutako santuaren egun ofiziala urtarrilaren 20an ospatzen da egutegi liturgikoan, dena den, data horretatik kanpo debozio popularretik bere interbentziorako errituak epidemiak mehatxu ziren edozein momentuetan gauzatu izan dira.

Hala gertatu zen Okondon 1865eko azaroan, epidemia baten mehatxuagatik santuaren omenez bederatziumen bat ospatu zutenean: “En vista de los estragos que

---

<sup>10</sup> Mugen izaera sakratua azaltzen du Josetxu Martínezek, komunitateren espazioa mugatzen baitute, eta horregatik eraiki dira askotan ermitak. MARTÍNEZ, Josetxu. *Pueblos, Ritos y Montañas: Prácticas vecinales y religiosas en el tiempo y en el espacio de la comunidad rural (Valle de Arana- Alava-Euskal Herria)*. Bilbo: Desclée De Brower, 1996, 35-36. orr.

<sup>11</sup> CELIGUETA, M<sup>a</sup> Ángeles. Op. cit., 445. or.

<sup>12</sup> ZUNZUNEGI, Jose María. “Los santuarios en la tradición cristiana”. In: *Santuarios...*, op. cit., 40. or.

<sup>13</sup> RÉAU, Louis. *Iconografía Del Arte Cristiano: Introducción General*. Bartzelona: Serbal, 2000, 441. or.

<sup>14</sup> IDEM. *Iconografía Del Arte Cristiano: Iconografía De Los Santos P-Z*. Bartzelona: Serbal, 1998, 194. or.



la epidemia reinante está haciendo en varios poblaciones de España, el ayuntamiento de este valle, de acuerdo con el cavildo, acordó la traslación del martir San Sebastian desde su hermita de Otaola donde se venera a la parroquia de Santa Maria de Unzá para celebrarle allí una novena, y que en seguimiento, a trasladarle a la de San Roman dondetambien se le ha de celebrar otra igual novena”<sup>15</sup>. Translazioa, kasu honetan, ermitan kontserbatzen diren santuaren erlikiekin egin zen; baina askotan irudia izaten zen santua errepresentatzen zuena. Bada, irudia ez zen herritarrentzako tailla huts bat; arrisku baten aurrean benetan pentsatzen zuten irudi hori mugitzeagatik mirari bat gertatuko zela.

Kristautasunaren lehen urteetan idolatriaren beldurra gainditu ostean, eliza hierarkikoko intelektualak konturatu ziren, erlikiekin lehenengo eta ondoren irudiak onartuz, jendearen fedea irabazteko sentikortasunetik jo behar zutela eta ez ideia abstraktuetatik<sup>16</sup>. Honek ekarritako polemikak alde batera utziz, eta irudiak letragabeko herriari doktrina kristaua erakusteko tresnatzat hartu ziren arren, argi dago bertute magiko eta miraritsua atxikitu zitzaizela, herriaren kultu objektu bihurtu zirelarik<sup>17</sup>. Ondorioz, nahiz eta ermitak ekimen xumeko tenplu kristauak izan, hauetan ere irudiak sortu dituzte, Basurkoko azaldutako erlazio sinple, zuzen eta errentagarriagoak lortuz.



2. Irudia: Deba San Roke egunean prozesioan irudia ermitara igotzen.

<sup>15</sup> Archivo Histórico Diocesano de Vitoria/Gasteizeko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Vitoria-Gasteiz. *Petición de traslado del mártir San Esteban desde su ermita de Otalora, donde se encuentra, a la parroquia de Santa María de Unzá para celebrar novena en vista de los estragos que la epidemia está haciendo en las poblaciones*. 1862, sign: 02097/001-25, 1v-2r fol. Artxiboko katalogoaren izenburuan gaizki katalogatuta dago, Otaolako San Sebastian ermitan hasi zen bederatzirena.

<sup>16</sup> ZUNZUNEGI, Jose María. Op. cit., 39. or.

<sup>17</sup> RÉAU, Louis. *Iconografía Del Arte Cristiano: Introducción...*, op. cit., 491. or.

Irudiak sinesleengan zuen garrantziaz gain, iturri honek pista gehiago ematen dizkigu bizilagunek ermitekiko zuten loturaren inguruan: “Ya estan tomadas las disposiciones para llevar al santo en la tarde del 5 a la parroquia de San Román y celebrarle allí segunda novena, pero nos encontramos con el disgusto de saber, según anuncio, que a mismo tiempo se está celebrando la de la hermita, y que bien sea por la comodidad de los unos, ò bien por curiosidad de los otros ha de distraerse de la parroquia la mayor parte de la feligresia, minorandose estraordinariamente el culto y veneracion que se debe a tan glorioso santo”<sup>18</sup>.

Okondoko benefiziatu batek egin zuen meza ermitan, udalak eta kabildoak San Roman parrokian meza deitu zuten aldi berean. Salaketa egiten duen apaizak ermitan meza ospatzean santuaren benerazioa gutxiesten dela esatean parrokia gailentzen du, baina herritarrak nahi ofizialetik bereizten direla ikusten dugu. Parrokiara joan beharrean ermitara hurbiltzean, bi tenpluen artean hierarkiarik ulertzen ez zutela ikusi dezakegu, behintzat deboziotik ulertuta, hau da, ermitatik santuaren interbentzioa eskatzeak parrokiaren efikazia berdina izango zuela epidemiari aurre egiteko. Izan ere, ermitak, oinarrian, kultu kristauko guneak izan arren, askotan eliz hierarkiatik mespretxatuak izan ziren praktika herrikoiak eta ez ofizialak burutzeagatik, eta batzuetan, nahiko anbigua suertatzen da ermiten gainean zuten kontrola adieraztea.

### 2.3. Bizilagunen egunerokoan izan duten garrantzia

Ermitetan eliz hierarkiako mesfidantza ez zen disidentzia erlijiosoengatik soilik, eraikinon erlijioso eta laikoaren arteko muga lausoagatik ere bazen: parrokoak ermitara urtean egun seinalatuetan hurbiltzen ziren, aldiz, auzokideen egunerokoan ermita oso presente zegoen, honen baitan izaera sekularragoko jarduerak egiten zituztelako. Ezin dugu ahaztu, hala ere, mundudesakralizatua gizaki modernoaren asmakuntza dela<sup>19</sup>; historian, sekularra ez zen guztiz sekularra, eta ermitaren izaera sakratua izaten zen preseski eguneroko jarduera laikoei babesa ematen ziena.

Ermita auzokideen kohesio zentroa zen, biltzeko tokia. **Auzoa** hedadura geografiko batean hurbiltasunean bizi diren familiek osatzen duten lehen nukleo komunitario antolatu gisa deskribatzen du Arregik, zeinetan biztanleek erlazio estua mantentzen duten tradizioan ondo finkatutako lan zerbitzuak elkarri eskainiz; honen

---

<sup>18</sup> Archivo Histórico Diocesano de Vitoria/Gasteizeko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Vitoria-Gasteiz. *Petición de traslado...*, op. cit., 1865, sign: 02097/001-25, 1v-2r fol.

<sup>19</sup> ELIADE, Mircea. *Lo sagrado y lo profano*. Madrid, Guadarrama, 1967, 21. or.

parte izateak auzoko ermitara lotuta egotea adierazten zuen<sup>20</sup>. Lur komunalak, auzolanak, nekazal zein abeltzaintzako elkarlaguntzak, errituak... administratu eta hauen antolatze eta gauzatzean sozializatu eta talde loturak sortzen zituzten. Antolamendu honetan ermitak pisu sinboliko handia lortzen zuen.

**Serorek** ondo erakusten digute ermiten izaera laikoaren eta erlijiosoaren arteko lausotasuna. Parrokia, ospitale eta baita ermitetan zaintza (eta zaintzatik haratago zihoazen karguak) emakume hauek burutzen zuten. Jatorri zehatza zalantzazkoa den arren, Erdi Aroan aurkitzen ditugu Euskal Herrian lehen aipamen dokumentalak<sup>21</sup>, XX. mendera arte iraun dutelarik toki gutxi batzuetan; baina, batez ere, Aro Modernoan euskal herrietan izan duten presentzia eta garrantzia soziala da azpimarragarria. Emakume laikoak ziren, halere, ezkongabeak edo alarguna izatea onesten zen. Ermitetan serorek, parrokietan ez bezala, ez zuten elizgizonen presentzia eta kontrol konstantea, askatasun eta betebeharrak gehiago lortzen zituzten ondorioz, eta auzokoen eguneroko bizitzan integratuta zeuden: nahiz eta ofizioa gidatu ez, emakume hauek izaten ziren auzokideek egunerokoan aurkitzen zuten erreferente erlijiosoa<sup>22</sup>; kanpaiak jotzearen ardura ere izaten zuten, bizilagunei eguneko ordua eta orazio momentu eta abisuak adierazteko erabiltzen zirena<sup>23</sup>. Bai eta, ermitara mantenua eta sostengua ekartzen zuten beste hainbat jarduera gauzatzen zituzten: ermitaren lursailaren ustiapenak edota limosna eskaerak oso ohikoak izaten ziren biziraupenerako, eta ermitaren zaintza eta ornamenturako. Ondasun kudeaketa eta autonomia ekonomikoa lortzen zuten beraz<sup>24</sup>.

Beste batzuetan, ermiten kudeaketaren ardura ermitauak edo auzoko bikote ezkonduak izaten zuten, eta, kasu hauek ere, ardura laikoengana eramaten gaituzte. Baina serorak ziren emakume izateagatik betebeharrak eta eskubideen murrizketa konstanteak jasan zituztenak, espazio publikoan zuten boterea eta sakratuarekiko lortzen zuten lotura ez baitzen eliza hierarkiaren gustukoa izan. Trentoko Kontzilioaz geroztik Calahorra-La Calzada zein Iruñeko gotzaindegiak betebeharrak murriztu, eta emakume hauen gaineko kontrola handitzen zuten neurriak ezarri zituzten; eta batzuetan

---

<sup>20</sup> ARREGI, Guritzi. *Origen y significado...*, op. cit., 388-390. orr.

<sup>21</sup> ARZA, Florencio. *Freilas, Seroras y Beatas Vascas: Personalidad y Caracterización (c. 1500-1650)* [doktorego tesia]. Universidad de la Rioja, 2015, 106. or.

<sup>22</sup> Auzokideek ermitan serora aurkitzen zuten parrokia beharrean, Mikel Larrañagak imajinatu egiten du ermitara laguntza eske hurbiltzen ziren fidelen sendaketa errituaren argibideak ematen zituztela. LARRAÑAGA, Mikel. *Serorak Debagoienean (XVI-XVIII)*. Bergara: Bergarako Udala, 2010, 41. or.

<sup>23</sup> ARZA, Florencio. Op. cit., 355. or.

<sup>24</sup> LARRAÑAGA, Mikel. Op. cit., 62. or.

seroren desagertzea ere agindu zuten arren<sup>25</sup>, orokorrean XVII. mendean mantendu ziren, arlo sozialean oso garrantzitsuak zirelako<sup>26</sup>.

Bada, seroren abolizioa defendatu zutenek nahiago zuten emakumeak paretik kentzea ermitak mantentzea baino. Borboiak agintera heltzean indartzen da nahi hau: 1769ko Errege Zedulan, parroketan serorak sakristauengatik ordezteka agindu zen, ermitetan aldiz, zuzenean serora deuseztatzea eta ermitaren itxiera agintzen zen<sup>27</sup>. Beraz, boterea zentralizatzeko nahian, ez zituzten herritarren beharrak kontuan izan, ez soilik erlijio kontuetan, baizik eta baita ere ermita herritarren zentro erlijioso eta sozial gisa baliogabetzen.

Hala ere, gaur egunera arte heldu dira hainbat ermita, **bizilagunek bilatu eta bermatu** baitute belaunaldietan zehar kultu toki hauek irautea, auzolanean edota laguntza ekonomikoen bitartez. Ikusi bezala, askotan seroren funtzioa zen ermiten hornitze eta mantentze lana, beraien ardura izaten baitzen apainketa eta ermitako obra, limosnetatik edo bestelako jarduera ekonomikoetatik lortzen zuten dirua erabiliz. Areago, Florencio Arzak ondorioztatzen duenez, zenbait kasutan gustu ona eta ikonografia eta kristau doktrinaren nolabaiteko nozioa beharko zuten, artelanen enkarguetan seroren eskuhartzeak dokumentatzen dituelako<sup>28</sup>.

Beste kasu batzuetan, bizilagunak ziren ermitak beraien dirutik sustatzen zituztenak. Okondora itzuliko gara bertako zenbait promozioren izaera hausnartzeko.



3. Irudia: Okondoko San Sebastianen ermita.

---

<sup>25</sup> 1620an Calahorra-La Calzadako sinodoetan hala erabaki zuten sakristauengatik ordezteka aginduz. *Constituciones Synodales del Obispado de Calahorra y la Calzada Hechas y Ordenadas por Pedro Gonzalez del Castillo Obispo de Calahorra, Synodo Diocesano que se celebró en Logroño en el año 1620*. Madril: Viuda de Alonso Martín, 1621, 136v-137v fol.

<sup>26</sup> Areago, Amanda L. Scottek erreformari laguntzeko aliatu baliagarriak izan zirela ere azaltzen du. SCOTT, Amanda L. *The Basque Seroras: Local Religion, Gender, and Power in Northern Iberia, 1550-1800*. Ithaca: Cornell University Press, 2020, 56. or.

<sup>27</sup> Ibid., 162-163. orr.

<sup>28</sup> ARZA, Florencio. Op. cit., 366. or.

**Tokiko nobleziak** ermitaren balioa ulertu eta dirua edo ofrendak ematen zituzten: Urkijotar familiak, adibidez, lotura estua izan zuen Otaolako San Sebastianen ermitarekin, familiaren dorretxea (gaur desagertuta) auzo berean kokatzen zelako<sup>29</sup>. Hori horrela, prestigioa erakusteagatik edo familiak auzoarekiko zuen loturagatik, ermita hornitu zuten belaunaldietan zehar. Gehienetan promozioa ez da oso handia, baina zenbait kasutan kalitate artistiko altuko obrak aurkitu ditzakegu, ermitarekiko zuten ardura eta balioespena demostratzen dutenak.

Amerikan **aberastutako bizilagunak** ere ez ziren jaioterriko ermitez ahaztu. Hala, Juan de Ibarrolak 1743an sinatutako testamentuan Unzáko parrokia berria eta eskola bat eraikitzeko dirua bidaltzeaz gain, bostehun peso bidali zituen Okondora “consignados al cavildo secular”, herriko bost ermita atontzeko<sup>30</sup>. Bi datu dira hemen interesgarriak: bata, parrokia edo eskolak herrira onura ekartzen zutela ulertzen zuen moduan, ermitekin ondorio berdina ikusten zuela. Eta, bestetik, parrokiako dirua “cavildo catedralicio”-ari bidaltzen dion bitartean, ermiten dirua Okondoko botere zibilera bidaltzen duela, hau da, ermiten **mantenua**, elizatik baino antolamendu **laikotik** ematen zela. Beste ekimen batzuek argiago uzten digute bizilagunen kudeaketa: berriz ere San Sebastian ermitan, 1915ean guztira 115 bizilagunek limosna eman zuten “a las obras de reparación”, eta sobratu zena, “con alguna otra limosna para comprar el sobremantel del altar del santo”<sup>31</sup>. Bada, bizilagunek ahal dutena emanek taldean ordaintzen dute, ez konponketa lanak soilik, baita gune sakratuko elementuak ere.

Ordainketa hauek toki sakratu hauekiko sentitzen zuten beharra eta lotura baieztatzen dute. Auzokoen bizitzan horren presente egonik, ermitek ezinbestean kultura eta **nortasun eraketa guztiz baldintzatu** zuten. Era berean, santu baten babesean dauden heinean, nortasunaren parte bihurtzen da bai santua eta baita irudia ere, santu horren egunean egiten den festa izanik kolektibo honen definizio propioa eta kontzientzia modu argienean azaleratzen den eguna<sup>32</sup>, eta baita iraganeko hildakoekin estutzeko eguna ere, belaunaldietako identitatea indartzen duena<sup>33</sup>.

---

<sup>29</sup> PORTILLA, Micaela J. *Torres y casas fuertes en Álava*. 2. lib., Vitoria-Gasteiz: Caja de Ahorros Municipales de Vitoria, 1978, 817. or.

<sup>30</sup> Archivo Histórico Diocesano de Vitoria/Gasteizeko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Vitoria-Gasteiz, *Testimonio de poder dado por los vecinos de Oquendo a favor de Martin de Urusaustregui para cobrar 4600 pesos mandados por Juan de Ybarrola Castañiza para dotación de la escuela de primeras letras y 500 pesos más para las cinco ermitas del valle*. 1743, sign: 02096-001.31, 15r fol.

<sup>31</sup> Archivo Histórico Diocesano de Vitoria/Gasteizeko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Vitoria-Gasteiz, *Lista de los que han contribuido con sus limosnas a las obras de reparación de la ermita de San Sebastián Mártir en 1914*. 1914, sign: 02097/001-01, 1v fol.

<sup>32</sup> MALDONADO, Luis. “Los santuarios en la religiosidad popular”. In: *Santuarios...*, op.cit., 17. or.

<sup>33</sup> ARREGI, Gurutzi. *Origen...*, op. cit., 389. or.

### 3. ZERGATIK IKERTU BEHAR DIRA ARTEAREN HISTORIATIK?

#### 3.1. Ermitak artea dira?

Ermitetan gehien interesatu den ikerketa arlo sozialarena izan da, eta, horregatik, antropologiak eta etnografiak erakutsi dute bertako landatar bizitzarenganako interesa. Dena den, eraikinak eta santuaren irudiak historian zehar bertakoen identitatea definitu izan duenez, artearen historiatik interesgarriak izan beharko lirateke. Baina, salbuespenak salbuespen, katalogazio orokor bat besterik ez da egin. Ezin da ezer gehiago sortu ondare honetatik? Edo, herri xumeak egin duenez, ez da interesik egon artearen historiaren diskurtsoan sartzeko?

Lehen hurbilketa batean, ermiten balorazio artistikoa egin nahi dugunean, ermitak arte ote direnaren duda dator burura, eta honekin disziplinan oinarrian dagoen galdera: zer da artea? Ez da definizio erraza, ez artea, eta ezta estetika, ez direlako esentzia unibertsalak; produktu kulturalak dira, gizarte eta historiaren arabera aldatu egiten direnak<sup>34</sup>. Hortaz, artea ez da objektuek berez duten ezaugarri bat. Fededunek ez zuten bereizketak egiten, egun arte eta erlijio banaketan egiten ditugunak<sup>35</sup>. Bada, artearen historiaren disziplinak XVIII. mendetik aurrera eraiki ditu kalitatezko kriterioak, eta gainera, ermitak eraiki zituztenak **ez ziren**



4. Irudia: Kontrastako Herrango San Martinen ermitako absidea barrutik.

**artelan bat sortzen ari**, debozioarentzako beharrezkoa zutena gauzatzen baizik.

Eraikin erlijioso monumentalagoak, artearen historian interesgarriagoak izan direnak ere, arrazoi berdinagatik sortzen dira: fededunek kultu kristaua aurrera eramateko espazio eta objektuak sortzeko beharretik. Egia da elite zirkuluetan ahalmen ekonomikoak emaitza formal zein sinboliko konplexuagoak lortzeko aukera ematen

<sup>34</sup> CASTRO, Sixto José. "Reivindicación estética del arte popular". *Revista de filosofía*, 27. zbk., 2002, 449. or.

<sup>35</sup> IDEM. "El papel del arte en el mundo religioso". *Revista de espiritualidad*, 288. zbk., 2013, 366. or.

dutela, intelektualagoak, eta boterearen interesetik hurbilago egotean, ortodoxoagoak ere. Dena dela, kristau arruntarentzako **sakratua dena sakratua da**, eta ermita batek, beste tenplu kristauak bezala, funtzio erlijiosoak asetzen ditu, eta ez du sakratu izaera galtzen artearen kriterio hierarkikoen arabera kalitatea txarragoa duelako. Okondoko San Sebastianen bederatziurrenean ikusi dugu nola bizilagunek, parrokan beharrean, ermitan meza egiteari efikazia erlijioso berdina ikusi ziotela.

Ez hori bakarrik, beharrezkoa da santuaren **irudiak** objektu sakratu gisa, eta ez artelan gisa, herritarrentzako zuen **garrantzia** ere ulertzea. Louis Réau-k azaltzen duenez, zaila da intelektual batentzako irudiak pertsona letragabeetan duten influentzia entenditzea, azken hauek zentzumenen inpresioaz soilik elikatzen baitira<sup>36</sup>. Hau da, arlo akademikotik herritarren manifestazio artistikoak baliogabetzean, ez da kontuan hartu manifestazio hauek norainoko inpaktua izan zezaketen, edota komunitate horren historia zein puntutaraino kondizionatu zezakeen. Gainera, serorak herritarren eguneroko erreferente erlijioso izango ziren moduan, pentsa dezakegu, bizilagun askok eta askok egunerokoan ikusten zituzten obrak gutxi zirela, eta egun kalitate kaskarreko kontsideratzen ditugunak. Hortaz, ermitetako irudi eta arkitektura hauek ziren beraien erreferente erlijioso -eta, beraz, artistiko- eta hau kontuan hartzekoa da, identitatearen eraikitzean, estetikak pisu handia lortzen duelako<sup>37</sup>.

Azken finean, garai historiko eta toki bateko pertsonak ziren, eta behar espiritual eta sozial batzuei aurre egiteko obrak eraiki zituzten. Bada, printzipioz, artearen historiarentzat obra horiek ondare material diren heinean, hauen ikerketa artistikoak sortzaileen historiako informazioa eman diezagukete. Hala ere, herritarren sorkuntzak direla eta, **sinplifikazio eta baliogabetzeko joera** izan da orokortu dena, eta hainbat arrazoi egon daitezke honen atzean.

Ikuspegi teoriko batean, artearen teoria zein estetikatik, **arte eta arkitektura herrikoi eta kultuaren** banaketa egin izan da. Dena dela, arte eta arkitektura herrikoia definizioan, eta kultuarekiko duen bereiztasunean, ez dago adostasunik: herrikoia kontzeptua zabala eta anbigua da, teoria kontrajarriak ekarri dituelarik<sup>38</sup>. Eztabaida hauek aztertzea lan honen helburua gainditzea izango litzateke, baina, kontuan izatekoa da polemika hau existitzeak arte herrikoia definizio eta ikerketa falta

---

<sup>36</sup> RÉAU, Louis. *Iconografía Del Arte Cristiano: Introducción...*, op. cit., 404. or.

<sup>37</sup> DÍAZ, Gerardo. "Teoría y fenomenología del arte popular. Una mirada desde los estudios del mueble". *Res Mobilis*, 6. lib., 7. zbk., 2017, 17. or.

<sup>38</sup> CASTRO, Sixto José. "Reivindicación...", op. cit., 434. or.

baieztatzen duela.

Esther Alegrek, arkitektura zentratuz, esaten du arkitektura kultua tekniko, eruditu, zein filosofiko gisa ulertzen dela, estilo edo arkitekturen jatorri bezala ulertua, kanon eta arau unibertsalak dituen. Eta honen aurkakoa ulertu izan dena arkitektura herrikoia da, tokikoa dena, ingurugiro, klima, material, funtzio sozial eta ekonomikoekin lotuta dagoena, eta belaunaldietan transmititutako jakintzen herentzia dena<sup>39</sup>. Arte herrikoian orokorrean arteari atxikitu izan zaizkion hainbat elementuren falta ikusi izan da: edertasuna, estetika, armonia, akademiaren zurruntasuna...<sup>40</sup>. Gerardo Díazek arte herrikoia definizioaren arazoa aztertzen duenean, klase ez agintariak bere satisfakziorako sortzen duen artea dela esaten du, eta, aldiz, arte kultua eliteei erreserbatutakoa izan dela, arte kultua baino, *eliteen arte* izendapena emanez<sup>41</sup>.

Hori horrela, arte herrikoian ardura urria erakutsi dute ikertzaileek, eta arte kultuarena pribilegiatu da<sup>42</sup>. Argi ikusten dugu hau ermitetan, erlijio kristauak tenplu monumentalagoak dituen huetan zentratu da ikerketa artistiko historikoa. Eta kontrara, ermitak ez dira disziplinan horren interesgarriak izan, historiarekin baino, tradizioarekin erlazionatu direlarik. Noski **tradizioa** existitzen dela, tokikoek berezkatat dituzten ezaugarriez ari gara, azkenean testuinguru geografiko batean kokatzen dira, hori horrela, eraikina eraikitzerakoan hurbileko materialak erabili dituzte, herentzian jasotako teknikak landu dituzte, eta forma klimak sortutako beharretara egokitu dute<sup>43</sup>.

Ermitetan tradizioa irakurri dezakegu beraz, baina hau ez da tokian berez jaiotzen den zerbait, denbora pasa ahala **aldatu egiten** da, eta aldaketa hori materialean islatzen da. Pérezek argi esaten du: "la arquitectura no es expresión de los territorios, sino de las comunidades. Y cuando estas cambian, cambian también sus bienes o la forma de vivirlo"<sup>44</sup>. Luis Pedro Peña-Santiagok ere ildo bereko ondorioa ateratzen du, ermita eta elizetan euskal estilo bat existitzen dela esatearen arriskua

---

<sup>39</sup> ALEGRE, Esther. "La popularización de la arquitectura". *Espacio, tiempo y forma. Serie VII, Historia del arte*, 16. zbk., 2003, 85. or.

<sup>40</sup> ZAÍT, Elías Francisco. "Algunas consideraciones y reflejos en la historia del arte sobre la piedad popular. Historia de las mentalidades durante la Edad Moderna en Canarias. Un ejemplo a partir de los inventarios parroquiales". *Almogaren*, 58. zbk, 2016, 188. or.

<sup>41</sup> DÍAZ, Gerardo. Op. cit., 9. or

<sup>42</sup> CASTRO, Sixto José. "Reivindicación...", op. cit., 432. or.

<sup>43</sup> DE HOZ, Jaime. "El origen de las identidades vernáculas en Arquitectura". In: GARCIA, Alejandro (ed.). *Arquitectura e Identidad Local*. Madrid: Escuela técnica superior de arquitectura de Madrid, 2014, 91-92. orr.

<sup>44</sup> PÉREZ, Javier. "El hábito no hace al monje. Materia y proceso en la arquitectura vernácula". In: PAYO, René J.; MARTÍN, Elena, et. al. (ed.). *Vestir la arquitectura. XXII congreso Nacional de Historia del Arte*. Burgos: Universidad de Burgos, 2019, 2. lib., 1526. or.



ikusten duenean: “es la variedad la que forma un todo, una variedad sujeta a distintas influencias, de época, de gustos, de necesidades, de posibilidades, del clima, de disponibilidad de este o aquel material e incluso de paisaje”<sup>45</sup>.

Beraz, tradizioa ez da geldia, eta historiaren bilakaerara lotuta dagoenez, **kanpoko influentziak** eta kultutzat daukagun artearen eragina jasotzen du. Esther Alegrek, arkitekturari erreferentzia eginez, estilo bat ulertzeko bere manifestazio herrikoiak ezagutzea funtsezkoa dela azaltzen du: bere esanetan kultuak soluzio batzuk sortzen ditu (espazialak, teknikoak, eskalak, etab.), eta hauek funtzionatzean, arkitektura herrikoiak arlo sinbolikoa sinplifikatu eta teknikoa erraztu ostean, eredu erraz eta errepikakorrek sortzen



5. Irudia: Arraingo San Juanen ermitako absideko lehioa.

ditu, behar eta tokira egokituta. Hau gertatzean, nolabait tradizioak herentzian emandakoaren eta artistak sortutakoaren arteko bereizketa lausotu egiten da. Gainera, estiloen benetako bukaera arkitektura herrikoiak baztertzean gertatzen dela azaltzen du, arkitektura kultuan baino gehiago irauten baitute, eta horregatik, beharrezkoa da adierazpen herrikoiak ezagutzea estiloen garapenak osotasunean ulertzeko<sup>46</sup>. Hortaz, ekimen txikiagoek azkenean herriak estiloak nola ulertu eta funtzio eta beharren arabera, tradiziora nola adaptatu dituzten erakusten digute. Eta ondorioz, mailegu hauen presentzia edo presentzia ezak gizaki talde baten mentalitate eta behar batzuei buruz hitz egiten digute.

Bestalde, adierazpen herrikoietan **kronologia** eta **egilearen** analisia baztertu egiten dira. Arte kultuan ezinbestekoa da bai artista eta bai kronologia aztertzea, artearen historiaren metodologian oso garrantzitsuak bihurtzen direlarik. Ermitetan, garaia, eta batez ere egilea, gehienetan ezezagunak dira. Katalogatzean kontserbatzen diren elementuak datatzen dira, baina kronologia datu moduan adieraztean ez da jatorri eta garapenaren diskurtso historikoa sortzen. Agian hau izan daiteke ermitak artearen

<sup>45</sup> PEÑA, Luis Pedro. *Arte Popular Vasco*. Donostia: Txertoa, 1976, 200. or.

<sup>46</sup> ALEGRE, Esther. Op. cit., 90-96. orr.

historian baliogabetzearen arrazoietakoa bat: existentzia tradizioan justifikatu izan dela eta ez historian. Era berean, zentro artistiko sortzaileen influentziak jaso izanak desafio bat planteatzen du artearen historian: Esther Alegrek azaldu digu nola arte herrikoiak kultuaren eragina jaso dezakeen, eta nola ez, eragin hauek ez dira zertan artearen estiloetan ezarri diren kronologia ofizialen barne egon behar<sup>47</sup>.

Bestalde, autoretzaren auzia dugu. Aurrerago ermitak arte diren planteatu da, berdintsua gertatzen da egileekin: **ermitak arkitektoek eta artistek sortu dituzte?** Hemen ere erantzuna ez da bai ala ez. Batzuetan egilearen izena ezagutzen dugu, oso gutxitan. Okondon, adibidez, badakigu San Prudentzio eta San Estebanen ermitako erretaula Alejo de Unzagak egin zuela 1821ean, bertako kontu liburuan agertzen delako<sup>48</sup>. Dena den, egilearen izena jakiteak ez du artista edo artisaua den argitzen. Proposatutako galdera, hala ere, ez litzateke eztabaidaren zentro bihurtu beharko, ermiten kasuan ez delako horren garrantzitsua. Kalitate hobegoko edo txarragoko egileak aurkitu ditzakegu, baina egia da ez direla berrikuntza artistikoaren lehen lerroan kokatzen, eta, hau bada ermitetan aurkitu nahi duguna, noski, ez dugu askorik lortuko.

Artista sortzailezat aho betez onartzen dugun horrek ere tradizio batean lan egiten du, komunitate bati lotuta, herentzian jasotzen dituen konbentzioekin eta publiko bat kontuan izanda: estandarizazioak, errepikatzen diren formulak... ere erabiltzendentu, eta hemendik behar duena hartu eta bere banakotasuna eta estetika jorratzen du<sup>49</sup>. Gerardo Díazek artista eta artisauak osagai berdinak dituztela ikusten du, baina proportzio ezberdinetan: jakintza teknikoa, asmaketa, nobedadea... biek izango lituzkete, baina artisauak tradizioaren pisu handiagoarekin<sup>50</sup>. Javier Pérezek egileak ezagutzearen garrantzia azpimarratzen du, eta ohartarazi egiten gaitu *anonimo* hitzak duen pasibotasun arriskuaz, egilea ezin delako kolektiboa edo tradizioa izan, komunitate horretan teknika ezagutzen duen pertsona bat baizik, eta ahal den heinean, hura ikertzetik lortuko da eraikuntzaren ulermen osoa<sup>51</sup>.

Beraz ermitetako egileak inguruan ofizioa ezagutzen zuten pertsonak izango ziren, tradiziora lotuta, teknika ezagutzeko edota tradizioa berritzeko gaitasun gehiago

---

<sup>47</sup> Ibid., 96. or.

<sup>48</sup> PORTILLA, Micaela J., et. al. *Catálogo monumental Diócesis de Vitoria. Tomo VI: Las vertientes cantábricas delnoroeste Alavés. La ciudad de Orduña y sus aldeas*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, 1967, 635. or.


<sup>49</sup> CASTRO, Sixto José. "Reivindicación...", op. cit., 448. or.

<sup>50</sup> DÍAZ, Gerardo. Op. cit., 13. or.

<sup>51</sup> PÉREZ, Javier. "Un marco teórico y metodológico para la arquitectura vernácula". *Ciudades*, 21. zbk., 2018, 19-20. orr.

edo gutxiago izango zituztenak. Dena den, kontuan izatekoa da **berritasuna eta orijinaltasuna ez zela helburu** izango. Eta nahiz eta promotore garrantzitsu baten programa artistikoa zurrunki jarraitu beharko ez zuten, ziurrenik ez zuten sortzeko askatasunik izango, **beste muga batzuk** izango zituztelako.

Ekimen xumeak izanik, egileak ez ziren puntakoenak, eta ofizioan zuten ezagutza mugatua izango zen. Beste muga bat: ekonomikoa. Egia da, lehenago aztertu bezala, batzuetan bizilagun dirudunek ermitara obrak eta dirua bidaltzen zutela, eta zenbaitetan atzetik tokiko noblezia ere bazegoela, Okondon Urkijotarrak San Sebastian ermitarekin egiten zuten bezala. Hala ere, gehienetan ez dira obra monumental batek zuen gastuarekin alderagarriak. Baina publikoa, askotan promotore ere izan zena, ez zen aberatsa, eta, beraz, logikoa da pentsatzea helburua ez zela monumentaltasuna. Honez gain, beste muga bat bizilagunen debozio herrikoia beharrak ezarriko zuen: ideia abstraktuak baino, ideia konkretuak eta sentikorrak eskatzen zituenak.



6. Irudia: Zigoitiako San Bartolomeren ermitako erretaula.

Bestalde, nahiz eta ermitek eliza ofizialarekiko nolabaiteko autonomia izan, hierarkia eklesiastikoak ahalik eta gehien kontrolatzen saiatu izan da, batez ere Trento geroztik. Horregatik diozesiko bisitariak ermitetara ere heltzen ziren, eta Aintzane Erkiziak azaltzen duenez, XVI. mendeko Arabako parrokia landatarreko produkzio artistiko popularrean, kalitate kontrolak ziren elizak zuen boterearen erakusketetako bat: askotan ondare artistikoaren egoera ikuskatzen zuten, artea baitzen erreformaren mezuaren gidari<sup>52</sup>. Argi esaten baita Trentoko Kontzilioan: “que á nadie se le sea lícito poner, ni procurar se ponga ninguna imagen desusada y nueva en lugar ninguno, ni iglesia, aunque sea de qualquier modo esento, á no tener la aprobacion del Obispo”<sup>53</sup>. Bada, ermitetan ere egiten zituzten bisitak, elizaren kontrolpean ezarriz. Era berean, ermitek bisiten kontrola jasotzeak

<sup>52</sup> ERKIZIA, Aintzane. “Poder eclesiástico y patronazgo artístico en las parroquias rurales alavesas”. In: BARTOLOMÉ, Fernando R. eta ORTEGA, Eneko (koord.). *Élites, promoción artística e imagen del poder siglos XV-XIX*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2021, 140-146. orr.

<sup>53</sup> LÓPEZ, DE AYALA, Ignacio. *El Sacrosanto y Ecuménico Concilio de Trento*. Madril: Imprenta Real, 1787, 359-360. orr.

momentu historikora lotura eta honen eragina demostratzen du.

Beraz, ez, ez zuten sortzaileek orijinaltasunerako askatasunik ez gaitasunik izango, baina ermitetan ez litzateke berritasuna kalitate kriterioetako bat izan beharko, helburua ez zelako hori. Gainera, nahiz eta orijinalak ez izan, aztertutako muga gehienak bai direla ekimen monumental batean ematen ez direnak, eta horiei arte kultuan beti erabiltzen ez ziren soluzio tekniko zein estetikoekin egin beharko zien aurre. Begi bistakoa da emaitza ez dela hiriko katedral bateko berdina, baina honek ez du esan nahi monumentalagoa denez eta eliteek eginikoa denez, katedrala ikertzean, ermita ulertzen dugunik, katedraletan aurkitzen ez ditugun elementuak baitituzte. **Eta ez ditugu ikuspuntu hierarkiko batetik ulertu behar.** Oso erraz ulertu dira bi arte bereizi hauek bi talde sozialen bereizketara lotuta daudela, bada, ezin zaie berdina eskatu. Sailkapen honetatik bat bakarrik goestea historia interesatu bat sortzea da. Noski beharrezkoa da elite horren historia, baina gutxiengo honetatik ezin dugu gainontzekoen historia sortutzat eman, ikuspuntu bakarra izango genuelako kontuan. Are gehiago, ermitek askotan boteredunen kontrol ezagatik mesfidantza pizten zuten, eta historiatik, eliteak aztertzeke interes gehiago ipini denez, hauen kontrol eta interesak kontraesan dituenak artearen historian bigarren plano batean gelditu dira. Horregatik eta herri xehearen iturri dokumental eskasiagatik, are garrantzitsuagoa bihurtu beharko litzateke hauen lekukotasun materialak aztertzea.

**Momentu historiko eta kulturalak osotasunean** ulertzeko ikertu behar dira, manifestazio bakoitzaren ezaugarri bereziak eta komunak ulertuz. Eta guk egiten ditugun sailkapenak zurrinak ez direla ahaztu gabe, batzuetan arte kultu eta herrikoia arteko banaketa lausoa izan baita. Ermitetan, zenbait kasutan promozio garrantzitsuen obrak aurkitu ditzakegu, arte kultuaren baloreekin bat egiten dutenak; eta, beste batzuetan, ez dute ez estilo edo bikaintasun artistikoaren arrastorik ere. Hori dela eta, honen logika ulertu eta hemendik baloratu beharko litzateke adierazpen bakoitza.

Beraz, arte edo ez arte, argi dago ermitak manifestazio materialak direla, eta egileek, artista kontsideratu edo ez, gizaki talde baten beharrei aurre egiteko sortu egiten dituztela. Bada, artearen historiaren helburua ondaretik abiatuta historia sortzea den heinean, disziplina honetatik bideratu beharko litzateke ermiten estudioa. Eta ez historia sortzeko soilik, baizik eta baita ere artearen eta estetikaren diskurtso bera aberasteko.

### 3.2. Ikerketa eta kontserbazio neurri egokitu baten beharra

Hausnartutakoa lortzeko, orain arte azaldutako guztia kontuan hartzen duen **Ikerketa metodologia baten beharra** dago, arte historia tradizionalak baloratu dituen obretatik bereizten dena: estiloen diskurtso eta kronologiarekin beti bat egiten ez duena, iturri dokumental eskasia duena, monumentaltasuna eta orijinaltasuna lehenesten ez duena, ondarearen garrantzia soziala ulertzen duena... Izan ere, ermiten katalogazioa garrantzitsua da desagertzen ari den ondarea delako, eta ikertzeko lehen pausua delako; katalogazioak, ordea, ez ditu aldaketak eta prozesu historikoak diskurtso osatu batean kontuan hartzen<sup>54</sup>.

Esaterako, jakina da ermitetan askotan tokia eta egiten diren errituak hasiera batean paganoak izan zirela eta kristautu egin zirela<sup>55</sup>, hau da, herritarrek izandako behar batez hitz egiten digute, historia luzez existitu izan dena, eta honi aurre egiteko, mekanismo material zein immaterial batzuk transmitituz eta eraldatuz joan direla. Gizarte horretan izan duen garrantzia sozial eta historiko hori baztertu egiten da analisi formal eta tipologiko bat soilik eginez. Egia da ikertzaile batzuek bai izan dutela kontuan ermiten balio etnografiko, kulturala edota identitarioa, eta guztiarekin diskurtso historiko osatu bat bilatu dutela. Hala nola, M<sup>a</sup> Ángeles Celigueta bere tesiaren sarreran onartzen du “En un primer momento, la orientación fue fundamentalmente artística [...] Pero, a medida que avanzábamos en esa dirección comprendimos que no nos teníamos que quedar sólo en la valoración artística sino que deberíamos abrirnos a una nueva perspectiva: social y de mentalidades colectivas, que supone un marco más amplio, en el que sólo adquiere pleno sentido el discurso histórico”<sup>56</sup>.

Hori lortzeko metodologia bateratu bat sortu beharko litzateke, horretarako, beharrezkoa da ikertu denaren berrikusketa, bai eta ermiten benetako definizio eta teorizazio sendoa sortzea. Ondare artistiko bezala biltzen dituen fenomeno sozial eta immaterial guztiak kontuan hartzen dituen teoria bat, horrela lortuko baita benetako balorazio akademikoa, eta baita apreziazio soziala ere. Jarduera honetan ezinbestekoa da beste diziplina batzuen ekarpenak kontuan hartzea, hala nola historia, geografia, antropologia, teologia edota arkeologia, besteak beste. Azkenik, honekin, eta arte eta

---

<sup>54</sup> ALEGRE, Esther. Op. cit., 85. or.

<sup>55</sup> LÓPEZ DE OCÁRIZ, Javier Javier. “Raíces de religiosidad popular”. In: LLANOS, Armando (zuz.). *Álava en sus manos*, Vitoria-Gasteiz: Arabako Kutxa, 1983, 2. lib., 176-177. orr.

<sup>56</sup> CELIGUETA, M<sup>a</sup>. Ángeles. Op. cit., 11. or.

arkitektura herrikoian integratzen diren beste ondarearen ikerketatik lortuko da ermiten inguruan biltzen zen herri xehearen historia osatu bat.

Esfortzu honetatik etorriko da ondare kultural gisa merezi duen definizioa, eta hemendik bideratu **babes eta interbentzio planak**. Hala adierazten da Aiaraldeko ondarearkitektonikoko “elementu txiki”-en katalogazioan ere: “Herri-elementu hauek kontserbatzeko defentsarik onena, bere potentzialtasuna ulertzean datza. Hau da, eraikin horien, eta beraz, egin zituztenen historia jakiteak, berez duten balio material eta sinbolikoa emango diete eraikin edo egitura horiei, eta garrantzia hori, etorkizunean kontserbatzeko motor bihurtuko da”<sup>57</sup>. Lan honek gero eta presa gehiago du, kontuan izanik ermitak desagertzen ari direla eta hauen inguruan antolatu izan den azken belaunaldia hiltzen ari dela.

Lehenago ikusi dugu nola urteetan zehar auzokideak, beharrianak bultzatuta, izan diren ermitak zutik mantendu dituztenak. Baina **landatar bizitza tradizionala desagertu** egin da, 50 eta 60. hamarkadan hiriko industrietara emandako migrazioak edota landako produkzioan gertatutako modernizazioekin; honekin, landa guneko tradizio eta sinesmenak galdu dira<sup>58</sup>. Desagertuz joan dira, beraz, ermiten beharrak ekartzen zituen bizilagunen antolamendua, ermitarekin zituzten loturak, eta honekin, ermita bera.



7. Irudia: San Joan Batailatzailearen ermita Zornotzako Ofrendoko gailurrean.

Gurutzi Arregi, landa lana egiten ari zela, tokikoei galderak egitean dena aldatu zela esaten zioten, eta konturatu zen 30 urtekoek ez zituztela guraso eta aitona-amonen

<sup>57</sup> PALACIOS Victorino eta RODRÍGUEZ, José. *Aiarako koadrilako ondare arkitektonikoa. Elementu txikiak*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2009, 25. or.

<sup>58</sup> MARTÍNEZ, Josetxu. Op. cit., 9. or.

erritu kolektiboak ezagutzen<sup>59</sup>. Eta hori pasa den mendeko hirugarren herenean egin zituela galdeketak; gaur egun, zer esanik ez. Kontserbazioari dagokionez, arkitektura eta artelan kultuek funtzioa galtzen dutenean artearen historiak, gizarteak eta baita turismoaren interes ekonomikoak ere, emandako balioagatik kontserbatu egin dira. Aitzitik, ermitek funtzioa galtzean, axolagabekeria erakutsi da belaunaldi berrietan.

**Badaude erregulazioak** balorazio materiala baino ondareek tokiko kulturen duten balorea ulertzen dutenak. Hori horrela, UNESCOk 1989ko Pariseko konferentzian “Conjunto de creaciones que emanan de una comunidad cultural fundadas en la tradición, expresadas por un grupo o por individuos y que reconocidamente respondan a las expectativas de la comunidad en cuanto expresión de su identidad cultural y social”<sup>60</sup>, ondare horren babestea erregulatzen zuten. Edota 1985ean Espainiako Ondare Historiakoren Legean: “los muebles e inmuebles y los conocimientos y actividades que son o han sido expresión relevante de la cultura tradicional del pueblo español en sus aspectos materiales, sociales o espirituales”<sup>61</sup> ulertzen zituen babesteko ondare etnografiko gisa. Orain arte aztertutako guztiak demostratzen du **ermitek horrelako legeek erregulatzen duten balio kulturala** badutela, baina berriz ere itzultzen gara teorizazio beharrera, ondarearen indefinizioak testu legislatiboetan kontraesanak eragiten baititu<sup>62</sup>.

Guztia kontserbatzea da arkitektura eta arte kultuak mendebaldean izan duen konponbidea: denboraren aldaketak kontuan hartu gabe, eta artistaren eskua ahalik eta orijinalen mantentzea<sup>63</sup>. Egia da ezin direla iraganeko ondare guztiak fosilizatu, lehenetsun batzuk ezarri behar dira: eraikuntza guztiek gizakiari buruz hitz egiten digute, baina modu kritikoan hautatu behar dira, kontuan hartuta komunitatean eta hauen identitatean duen esangura<sup>64</sup>. **Kontserbazio irizpide hauek sortzeko beharrezkoa da ondare honetan oinarritzen den filtroak sortzea**, ikerketatik bideratzen den definizio eta teorizazio sakonean oinarritzen dena, eta adierazpen kultu eta monumentaletik bereizi egiten dena.

---

<sup>59</sup> ARREGI, Gurutzi. *Origen...*, op. cit., 21. or.

<sup>60</sup> UNESCO. “Recomendación sobre la salvaguarda de la cultura tradicional y popular”. 1789ko azaroaren 15ekoa, [Actas de Conferencia General. 25ª reunión. París, 1989](#). Paris, ONU, 1990, 248. or.

<sup>61</sup> Espainia. 16/1985 lege organikoa, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa. [Estatuko Aldizkari Ofiziala](#), 1985ko ekainaren 29a, 155 zbk., 20347. or.

<sup>62</sup> PÉREZ, Javier. “La arquitectura vernácula en los territorios de baja densidad: una perspectiva cultural”. *A obra nasce revista de arquitetura e urbanismo da Universidade Fernando Pessoa*, 13. zbk., 2018, 83. or.

<sup>63</sup> IDEM. “El hábito...”, op. cit., 1523-1524. orr.

<sup>64</sup> IDEM. “Un marco...”, op. cit, 4. or.

Javier Pérezek ondarearen kontzeptualizazio eta hedatzea beharrezkoa dela esaten du, egungo ondarearen kontserbazio neurriek ez duelako tradizioaren mugimendua kontuan hartzen. Ikertzaile honek arkitektura herrikoian bi mota bereizten ditu: bata arkitektura herriko historikoa, komunitatearen iraganeko balore antropologiko herrikoiak dituenak; eta bestalde arkitektura herriko bizia, komunitateko balio antropologiko garaikideak dituenak, hau da, bizirik daudenak eta komunitatearentzako funtzioa izaten jarraitzen dutenak<sup>65</sup>. Ermitek orain dela gutxi utzi dute arkitektura herriko bizia izateari, eta hauen inguruan antolatutako kultura guztia izan da materialari balioa eman diona. Kultura honetara itzultzea eta honen kontserbazioa bultzatzea ez litzateke logikoa izango, jada ez direlako behar erlijioso zein sozial horiek existitzen. Baina, era berean, arlo sozialean izan duen garrantzia denez ermitetan garrantzitsuena, dauden moduan fosilizatzea edota musealizatzeak ez luke jatorrizko esangurarekin bat egingo.

Hori horrela, **kontserbazioa** aipatutako **mugimendutik** planteatu daiteke, izan ere, tradizioa aldatu egiten da, eraldatze honek ekarri du ermiten funtzioa galtzea, eta ondorioz, ondare honekiko axolagabekeria. Bada hau kontuan hartuta, eta artearen historiaren ikerketatik planteatutako teorizazioan oinarrituta, ondare honetan auzokideen egungo balio antropologikoak indartzen dituen interbentzioak bideratu daitezke. Horrela, interbentzio hauekin areagotu egin daiteke ondare gisa ematen zaien balioa. Era berean, globalizazio testuinguruan ermiten balio identitarioa berreskuratu daiteke; are gehiago, obra monumentalak ez dauden tokietan egonik, manifestazio herrikoiak identitatean are nabarmenagoak bihurtu eta birbalioztatu daitezke<sup>66</sup>.



8. Irudia: Bizkargi eguna Gurutze Santuaren ermitan.

Festa da batez ere ermitetan iraun duen ohitura bakarra, eta egia da hein handi batean iraganeko zentzu erlijioso galdu duela, baina ez dira ospakizunean auzokideen identitate eta arbasoekiko loturak galdu. Ondare immaterial honen kontserbazio eta babesak ondare materialaren ardura ekarriko luke. Beste kasu askotan festa ere

<sup>65</sup> IDEM. "La arquitectura...", op. cit, 75. or.

<sup>66</sup> Ibid., 72. or.



desagertu da, orduan, bizilagunen zerbitzu eguneratuak eskaintzeko espazioa sortzera bideratu daitezke. Gainera, iraganean auzokideek egunerokoan ermita presente zutenez, berrerabiltzeak ez du tradizioarekin hausten: esaterako Okondoko bizilagunek, 1818an egindako bisitan azaltzen denez, Kontzepzioaren ermita profanatu eta artoa eta fruta biltzeko erabili zuten<sup>67</sup>. Noski, hau ez zuten eskuhartze planifikatu batekin egin, egun beharrezkoa suertatzen dena, baina gaur egun, bizilagunen beharretan oinarrituta, eta ondarearen izaera aldatzen ez duten aldaketa onargarriak egin daitezke. Horrela lortuko da ermitek zuten kohesio funtzioa irautea, eta bertakoek iragan historikoarekin bat egitea. Eta beharbada, honekin, historian zehar bizilagunek ermitaren mantentzeagatik lan egin zuten bezala, bertakoek eraikin hauen balioa eta beharra ikustean lortuko da denboran irautea.

---

<sup>67</sup> PORTILLA, Micaela J., et. al. *Catálogo...*, op. cit., 637. or.

#### 4. ONDORIOAK

Nahiz eta ermitetako praktikak ez diren beti elizaren gustukoak izan, preseski ermitak dira kristautasunak landa gunean izan duen garaipenaren testigu materialak. Momentu batetik aurrera, kristautasunak ohitura paganoak moldatzen dituenen, inposizio beharrik gabe bizilagun laikoek bilatu eta sostengatu dute espazio sakratu hau. Zortea da artearen historiarentzako auzokideek behar horien aurrean eraikinak eta irudiak sortu izana, eta denboran zehar mantendu izana. Bada, lehen eskuko testigu diren heinean, landa guneko herri xeheak historian zehar garatutako beharrian eta mentalitateaz hitz egiten digute, eta hemendik ulertu behar dugu ermiten balio artistikoa, hauen inguruan antolatutako kultura guztia baita materialari balioa ematen diona.

Eliteetatik kanpo egon den ondarea izanik, gaur egun ikuspuntu akademikotik ere baliogabetu dira. Nahiz eta behe klasekoak beti izan diren biztanleriaren gehiengoa, artearen historiatik interes gehiago erakusten da boteredunen testiguetan. Egia da hurbilketa formala egitean interesgarriagoak direla: monumentaltasunagatik, konplexutasunagatik, estiloen erabileragatik, iturri dokumentalen ugaritasunagatik... kontrara, ermitetan aurkitzen duguna interes gutxiko fabrikak izaten dira, iturri dokumentalek ere pista gutxi ematen dizkigularik. Baina justuki horregatik bihurtzen da konplikatu ermitak aztertzea, eta, beraz, beharrezkoa artearen historiako profesionalek egitea balorazio artistiko-historikoa, adierazpen herrikoietara eta ermitetara moldatzen den metodologia batekin.

Gainera, behe klasekoak gehiengo izan direnez, nahitaez historia eta artearen historia baldintzatu behar izan dute, honen adibiderik argiena izanik kristautasunak irudiak behar izan dituela, guztiz baldintzatua gelditu delarik arte guztia. Horregatik, gehiengo honen adierazpenak aztertzea beharrezkoa suertatzen da, hemen adierazten baitira lehenesketatik premia propioak. Eta honekin lortuko da artearen historia osatu bat. Arte denaren horizonte mugen berrikusketa eman da azken urteotan arte xeheak, utilitarioak, etab. baloratzean, bada kontzeptuaren hedapen honetan, ermiten gisako manifestazio herrikoiagoak ere beharrezkoak dira historia eta artearen garapenaren ulermen totala lortzeko.

Izan ere, ermiten erabiltzaileek, hau da, herritarrek, argi utzi dute ermiten egunerokoan izan duten garrantzia, gaur arte heltzea horren adibide argi izanik. Eraikinaren xumetasuna, bizilagunen ekimen xumetasunak justifikatzen du, baina honek ez du esan nahi eboluzio historiko bat irakurri ezin denik. Eraldaketotan tradizioaren herentziak pisu handia izan du; hala eta guztiz ere, ermitak ez dira garai

historikoetatik modu independentean ulertu behar, eta horregatik ere suertatzen da beharrezkoa gure diziplinatik aztertzea: momentu historikoak osotasunean ulertzen dituenak. Bai eta herrikoi eta kultuaren arteko ezaugarriak bereizi eta komunean dutena kontuan izanik, artearen historia osatuago bat ahalbidetzen duenak. Bide honetatik lortuko da ermitak gizartearen partetik izan duten apreziazioa berreskuratzea; eta, honekin, kontserbazio eta interbentzio plan egokitu eta eraginkorrak sortzea, egungo beharrak kontuan hartzen dituenak, eta ondare honen ezaugarrietan oinarritzen direnak.

## 5. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

### Iturriak

*Constituciones Synodales del Obispado de Calahorra y la Calzada Hechas y Ordenadas por Pedro Gonzalez del Castillo Obispo de Calahorra, Synodo Diocesano que se celebró en Logroño en el año 1620.* Madril: Viuda de Alonso Martín, 1621.

Archivo Histórico Diocesano de Vitoria/Gasteizeko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Vitoria-Gasteiz, *Testimonio de poder dado por los vecinos de Oquendo a favor de Martin de Urusaustregui para cobrar 4600 pesos mandados por Juan de Ybarrola Castañiza para dotación de la escuela de primeras letras y 500 pesos más para las cinco ermitas del valle.*, 1743, sign: 02096/001-31.

Archivo Histórico Diocesano de Vitoria/Gasteizeko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Vitoria-Gasteiz. *Petición de traslado del mártir San Esteban desde su ermita de Otalora, donde se encuentra, a la parroquia de Santa María de Unzá para celebrar novena en vista de los estragos que la epidemia está haciendo en las poblaciones.* 1862, sign: 02097/001-25.

Archivo Histórico Diocesano de Vitoria/Gasteizeko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Vitoria-Gasteiz, *Lista de los que han contribuido con sus limosnas a las obras de reparación de la ermita de San Sebastián Mártir en 1914.* 1914, sign: 02097/001-01.

LÓPEZ DE AYALA, Ignacio. *El Sacrosanto y Ecuménico Concilio de Trento.* Madril: Imprenta Real, 1787.

### Legeak

Espainia. 16/1985 lege organikoa, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa. [\*Estatuko Aldizkari Ofiziala\*](#), 1985ko ekainaren 29a, 155 zbk., 20347. or.

UNESCO. "Recomendación sobre la salvaguarda de la cultura tradicional y popular", 1789ko azaroaren 15ekoa, [\*Actas de Conferencia General. 25ª reunión. París. 1989.\*](#) 248 orr.

### Bibliografia

ALEGRE, Esther. "La popularización de la arquitectura". *Espacio, tiempo y forma. Serie VII, Historia del arte*, 16. zbk., 2003, 81-110. orr.

ARREGI, Gurutzi. *Ermitas de Bizkaia*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1. lib., 1987.

IDEM. *Origen y significado de las ermitas de Bizkaia*. Bilbo: InstitutoLabayru, 1999.

ARZA, Florencio. *Freilas, Seroras y Beatas Vascas: Personalidad y Caracterización (c. 1500-1650)* [doktorego tesia], Universidad de la Rioja, 2015.

BASURKO, Xabier. "Los Santuarios hoy: claves de interpretación teológico-pastoral". In: *Santuarios del País Vasco y religiosidad popular: II Semana de Estudios de Historia*

*Eclesiástica del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Caja Provincial de Álava, 1982, 301-324. orr.

CASTRO, Sixto José. "Reivindicación estética del arte popular". *Revista de filosofía*, 27. zbk., 2002, 431-451. orr.

IDEM. "El papel del arte en el mundo religioso". *Revista de espiritualidad*, 288. zbk., 2013, 365-387. orr.

CELIQUETA, M<sup>a</sup>. Ángeles. *Ermitas en la montaña alavesa y en Treviño. Estudio histórico- geográfico y artístico* [doktorego tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco, 1997.

DE HOZ, Jaime. "El origen de las identidades vernáculas en Arquitectura". In: GARCIA, Alejandro (ed.). *Arquitectura e Identidad Local*. Madrid: Escuela técnica superior de arquitectura de Madrid, 2014, 91-92. orr.

DÍAZ, Gerardo. "Teoría y fenomenología del arte popular. Una mirada desde los estudios del mueble". *Res Mobilis*, 6. lib., 7. zbk., 2017, 1-19. orr.

ELIADE, Mircea. *Lo sagrado y lo profano*. Madrid: Guadarrama, 1967.

ERKIZIA, Aintzane. "Poder eclesiástico y patronazgo artístico en las Parroquias Rurales Alavesas". In: BARTOLOMÉ, Fernando R. eta ORTEGA, Eneko (koord.). *Élites, promoción artística e imagen del poder siglos XV-XIX*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2021, 135-155. orr.

LARRAÑAGA, Mikel. *Serorak Debagoienean (XVI-XVIII)*. Bergara: Bergarako Udala, 2010.

LÓPEZ DE OCÁRIZ, Javier Javier. "Raíces de religiosidad popular". In. LLANOS, Armando (zuz.). *Álava en sus manos*, Vitoria-Gasteiz: Arabako Kutxa, 1983, 2. lib., 169-200. orr.

MALDONADO, Luis. "Los santuarios en la religiosidad popular". In: *Santuarios del País Vasco y religiosidad popular: II Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Caja Provincial de Álava, 1982, 7-21. orr.

MARTÍNEZ, Josetxu. *Pueblos, Ritos y Montañas: Prácticas vecinales y religiosas en el tiempo y en el espacio de la comunidad rural (Valle de Arana-Alava-Euskal Herria)*. Bilbo: Desclée De Brower, 1996.

MUGURUZA, Félix. *Sinesmen eta Kondairak*. Laudio: Laudioko Udala, 2022.

PALACIOS, Victorino eta RODRIGUEZ, José. *Aiarako koadrilako ondare arkitektonikoa. Elementu txikiak*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2009.

PEÑA, Luis Pedro. *Arte Popular Vasco*. Donostia: Txertoa, 1976.

PÉREZ, Javier. “Un marco teórico y metodológico para la arquitectura vernácula”. *Ciudades*, 21. zbk., 2018, 1-28. orr.

IDEM. “La arquitectura vernácula en los territorios de baja densidad: unaperspectiva cultural”. *A obra nasce revista de Arquitetura e urbanismo da Universidade Fernando Pessoa*, 13. zbk., 2018, 71-89. orr.

IDEM. “El hábito no hace al monje. Materia y proceso en la arquitecturavernácula”. In. PAYO, René J.; MARTÍN, Elena et al. (ed.). *Vestir la arquitectura. XXII congreso Nacional de Historia del Arte*. Burgos: Universidad de Burgos, 2019, 2. lib., 1521-1526. orr.

PORTILLA, Micaela J. et al. *Catálogo monumental Diócesis de Vitoria. Tomo VI: Las vertientes cantábricas del noroeste Alavés. La ciudad de Orduña y sus aldeas*. Vitoria-Gasteiz:Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, 1967.

PORTILLA, Micaela J. *Torres y casas fuertes en Álava*. Vitoria-Gasteiz: Caja de Ahorros Municipales de Vitoria, 1978.

RÉAU, Louis. *Iconografía del Arte Cristiano: Iconografía De Los Santos P-Z*. Bartzelona: Serbal, 1998.

IDEM. *Iconografía del Arte Cristiano: Introducción General*. Bartzelona: Serbal, 2000.

SCOTT, Amanda L. *The Basque Seroras: Local Religion, Gender, and Power in Northern Iberia, 1550-1800*. Ithaca: Cornell University Press, 2020.

ZAIT, Elías Francisco. “Algunas consideraciones y reflejos en la historia del arte sobre la piedad popular. Historia de las mentalidades durante la Edad Moderna en Canarias. Un ejemplo a partir de los inventarios parroquiales”. *Almogaren*, 58. zbk., 2016, 187-210. orr.

ZUNZUNEGI, Jose María. “Los santuarios en la tradición cristiana”. In: *Santuarios del País Vasco y religiosidad popular: II Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Caja Provincial de Álava, 1982, 23-83. orr.